# Bestelako Xedapenak

## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

### 1915

EBAZPENA, 2008ko otsailaren 25ekoa, Merkataritza, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko sailburuordearena; honen bidez, merkataritza-ekipamenduak modernizatzeko laguntzen programaren barruan ezarritako diru-laguntzak 2008ko ekitaldian emateko deialdia jakinarazten da jende aurrean.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko maiatzaren 8ko Aginduaren bidez, 2006ko maiatzaren 26ko Aginduak aldatua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ematen dituen diru-laguntzen nondik-norakoak ezartzen dira, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten enpresek merkataritzako ekipamenduak modernizatzeko inbertsio-proiektuak gara ditzaten.

Aipatutako aginduaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, egoki da hor iragarritako diru-laguntzak emateko 2008ko ekitaldirako deialdia egitea, eta, horretarako, eman beharreko arau guztiak ematea.

Horrenbestez, aipatutako aginduaren 7. artikuluan ezarritako ahalmena erabilita, honako hau

ERABAKI DUT:

*1. artikulua.–* Xedea.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak 2003ko maiatzaren 8an emandako Aginduaren bitartez (2006ko maiatzaren 26ko Aginduak aldatua) arautu zen merkataritzako ekipamenduak modernizatzeko laguntza-programa, eta, hain zuzen ere, 2008ko ekitaldirako laguntza horien deialdia egitea da ebazpen honen xedea.

Helburu hori betetze aldera, 1.030.000,00 euro zuzenduko dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan 2008ko ekitaldirako eta arlo horretarako izendatutako aurrekontu-kredituari jarraituz.

Deialdi honi lotuta, gehienez jota eta guztira emango den diru-laguntzen zenbatekoa ez da izango artikulu honetan finkatutako diru-kopurutik gorakoa, edo, indarrean dagoen legeriari jarraituz, kredituen arteko loturarik edo aurrekontu-aldaketarik badago, lehengoa eguneratuta sortutako diru-kopurutik gorakoa. Horrenbestez, diru-kopuru hori ahitutakoan, ezin izango da diru- laguntza gehiago eman, eta, beraz, hortik aurrera, baliorik gabe geratuko da ebazpen hau. Egoera horietakoren bat gertatuz gero, horren berri jakinaraziko da Merkataritza, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko sailburuordearen ebazpenaren bidez.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

### 1915

RESOLUCIÓN de 25 de febrero de 2008, del Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial, por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas establecidas en el Programa de Apoyo a la Modernización de Equipamientos Comerciales, para el ejercicio 2008.

La Orden de 8 de mayo de 2003 del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, modificada por la de 25 de mayo de 2006, establece el marco de ayudas de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco a los proyectos de inversión destinados a la modernización de equipamientos comerciales realizados por empresas radicadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

De conformidad a lo establecido en el artículo 7 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2008, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 7 de la Orden de referencia,

RESUELVO:

*Artículo 1.–* Objeto.

Es objeto de la presente Resolución, la convocatoria para el ejercicio 2008 de las ayudas previstas en la Orden de 8 de mayo de 2003 del Consejero de Industria, Comercio, y Turismo, modificada por la de 25 de mayo de 2006, por la que se regula el Programa de Apoyo a la Modernización de Equipamientos Comerciales.

Para este fin se destinarán 1.030.000,00 euros según el correspondiente crédito presupuestario establecido al respecto en la Ley 15/2007, de 28 de diciembre, por la que se aprueba los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el ejercicio 2008.

El volumen total de ayudas a conceder con cargo a la presente convocatoria, no podrá superar el importe consignado en este artículo o el que resulte de su actualización, conforme al régimen de vinculación crediticia o de modificación presupuestaria previsto en la legislación vigente. No procederá por tanto la concesión de nuevas ayudas una vez agotado dicho importe, suspendiéndose a partir de ese momento la eficacia de la presente disposición. En su caso, de ambas circunstancias se dará publicidad mediante resolución del Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial.

*2. artikulua.–* Betekizunak.

Eskabidea egin nahi dutenek, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2006ko maiatzaren 26ko Aginduarekin aldatutako 2003ko maiatzaren 8ko Aginduan iragarritako diru-laguntzetakoren bat eskuratu ahal izateko, agindu horretako 2. artikuluan ezarritako betekizunak errespetatu beharko dituzte.

Aipatutako aginduaren 2. artikuluak aurreikusten du laguntza horiek jaso ahalko dituztela enpresa ertain eta txikiek, baldin eta bertan jasotako betekizunak betetzen badituzte, apirilaren 3ko 1996/28/CE Gomendioan (edo hura ordezkatu nahiz aldatzen dutenetan) enpresa ertain eta txikien definizioaz xedatutakoaren arabera ulertuta.

2005eko urtarrilaren 1etik aurrera, gomendio horren ordez maiatzaren 6ko 2003/361/CE Gomendioa eman da; ondorioz, enpresa ertain eta txikiek horrelakotzat jo ahal izateko bete behar dituzten betekizunak azken gomendio horretan finkatzen direnak izango dira.

*3. artikulua.–* Eskabideak eta epea.

1.– Eskabideak eta gainerako dokumentazio osagarria Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko lurralde-bulegoetakoren batean aurkeztuko dira, aurkeztutako proiektua nongoa den, horko lurralde-bulegoan; bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan zehaztutako lekuetan ere aurkez daitezke agiriok.

Eskabidea eta inprimakiak betetzeko ereduak Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko lurralde-bulegoetan jaso daitezke, edo, bestela, interneteko helbide honetan ere bai: www.euskadi.net/comercio.

2.– Eskabideak aurkezteko epea, hasi, deialdi-ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta, bukatu, horretarako izendatutako kreditua ordurako ahitzen ez bada behintzat, 2008ko irailaren 4an bukatuko da.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.–*** Deialdi-ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

***Bigarrena.–*** Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa jarri ahal izango da Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburuaren aurrean, hilabete bateko epean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko otsailaren 25a.

Merkataritza, Kontsumo eta
Industria Segurtasuneko sailburuordea,
RODRIGO GARCÍA AZURMENDI.

*Artículo 2.–* Requisitos.

Los solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden de 8 de mayo de 2003 del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, modificada por la de 25 de mayo de 2006, deberán reunir los requisitos establecidos en el artículo 2 de la Orden de referencia.

El mencionado artículo 2 prevé que podrán acceder a dichas ayudas las pequeñas y medianas empresas que cumplan los requisitos establecidos en la misma interpretados conforme a lo dispuesto en la Recomendación 1996/28/CE, de 3 de abril, sobre definición de pequeñas y medianas empresas o las disposiciones que la sustituyan o modifiquen.

A partir del 1 de enero de 2005 la citada Recomendación ha sido sustituida por la Recomendación 2003/361/CE, de 6 de mayo, por lo que los requisitos que deberán cumplir las pequeñas y medianas empresas para tener tal consideración serán los fijados en esta última Recomendación.

*Artículo 3.–* Solicitudes y plazo.

1.– Las solicitudes y demás documentación complementaria se presentarán en la Oficina Territorial de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco del Territorio Histórico donde se ubique el proyecto, o en los lugares especificados en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Un modelo de solicitud y de formularios será facilitado en las Oficinas Territoriales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, y en la dirección de Internet: www.euskadi.net/comercio.

2.– El plazo de presentación de solicitudes se iniciará a partir del día siguiente al de la publicación de la presente Resolución de convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco y, en tanto no se haya agotado el crédito consignado al efecto, finalizará el 4 de septiembre de 2008.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.–*** La presente Resolución de convocatoria entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Segunda.–*** Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de febrero de 2008.

El Viceconsejero de Comercio, Consumo
y Seguridad Industrial,
RODRIGO GARCÍA AZURMENDI.